



Usurbilgo Udala

Data: 2023/07/20

## 2023KO UZTAILAREN 20AN EGINDAKO EZOHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia  
Ainhoa Arrozpide Landa  
Iratxe Begiristain Otegi  
Xabier Aranburu Leiva  
Jose Maria Lizaso Azconobieta  
Oskar Santamaria Picabea  
Maialen Iñarra Arregi  
Xabier Otxoa Muñoz  
Ivan Iriondo Axpe  
Josune Urkola Larrarte  
Petra Romero Pozo

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez da bertaratu: Xabat Beloki Segurola.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2023ko uztailaren 20an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

### **1.- 2023/06/27KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Batzarkideek 2023ko ekainaren 27ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

### **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2023KO EKAINAREN 19TIK UZTAILAREN 14RA (2023/634-2023/733).**



Usurbilgo Udala

Data: 2023/07/20

Alkateak 2023ko ekainaren 19tik uztailaren 14ra bitartean (2023/634-2023/733) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Alkateak 2023/657 zenbakia duen dekretuari buruzko zehaztasunak eman ditu, Usurbilgo Udalak Grupo Ingemar SArekin akordio berezi bat sinatzea ahalbidetu zuena.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### 3.- BATZORDE INFORMATZAILEEN OSAKETAREN BERRI EMATEA (2023IIBE0001).

2023ko ekainaren 27ko Udalbatzarrak Usurbilgo Udaleko Batzorde Informatzaileen kopurua, izena eta osaketa onartu zituen, honako hauek zehazki:

“Batzorde Informatzaileen kopurua eta izena:

1. Lurraldea.
2. Herritarrak.
3. Antolaketa.

Osaketa:

Batzorde Informatzaileak 5 kidez osaturik egongo dira eta talde politiko bakoitzak honako ordezkari izango du:

- EH Bildu: 3 kide
- EAJ-PNV: kide 1
- PSE-EE: kide 1”

Udal talde politikoek jakinarazitakoaren arabera Batzorde Informatzaileak honela osatuta geratzen dira:

#### LURRALDEA

EH Bildu: Ainhoa Arrozpide  
Iratxe Begiristain  
Xabier Aranburu  
EAJ/PNV Xabier Otxoa  
PSE-EE Petra Romero

Ordezkoa: Agurtzane Solaberrieta  
Ordezkoa: Joxe Mari Lizaso  
Ordezkoa: Oskar Santamaria  
Ordezkoa: Josune Urkola

#### HERRITARRAK

EH Bildu: Agurtzane Solaberrieta  
Jon Mikel Azpiazu  
Xabat Beloki  
EAJ/PNV Ivan Iriondo  
PSE-EE Petra Romero

Ordezkoa: Ainhoa Arrozpide  
Ordezkoa: Iratxe Begiristain  
Ordezkoa: Xabier Aranburu  
Ordezkoa: Xabier Otxoa



Usurbilgo Udala

Data: 2023/07/20

#### **ANTOLAKETA**

EH Bildu:	Iratxe Begiristain	Ordezkoa: Ainhoa Arrozpide
	Agurtzane Solaberrieta	Ordezkoa: Xabier Aranburu
	Joxe Mari Lizaso	Ordezkoa: Oskar Santamaria
EAJ/PNV	Josune Urkola	Ordezkoa: Xabier Otxoa
PSE-EE	Petra Romero	

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

#### **4.- 2022KO KONTU OROKORRA ONARTZEA (2023EKKO0001).**

Batzarkideek Kontuen Batzorde Bereziaren irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Behin 2022ko ekitaldia amaiturik, Aurrekontuaren exekuzioa eta Likidazioa onartu zuen Usurbilgo Udalak, 2023ko martxoaren 8an Alkatetzak emandako Dekretuaren bidez.

Jarraian, 2022 ekitaldiko Kontu Orokorra osatu zen, eta indarrean dagoen araudiari jarraituz, Kontuen Batzorde Bereziaren oniritzia jaso zuen 2023ko maiatzaren 16an. Ondoren, 15 lanegunez jendaurrean egon da, maiatzaren 26an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik. Erakusketa publikoaren epealdian inolako erreklamaziorik jaso ez denez, hasieran emandako aldeko iritzia behin betikoa bihurtu da eta Udal Batza Osoak onartu behar du Kontu Orokorra uztailaren 31 baino lehen.

Beraz, indarrean dagoen araudia jarraituz, udal honetako Kontuen Batzorde Bereziak bere oniritzia emanik, Udal Batza Osoari proposatu zaio 2022ko Kontu Orokorrari behin betiko onarpena ematea. Horren aldeko 2 bozka jaso dira (EH Bildu) eta beste 2 abstentzio (EAJ + PSE).

Irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak aho batez onartu du 2022ko Kontu Orokorra.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

#### **5.- HAUR ESKOLA ZERBITZU-EMAKIDA KONTRATUAREN ALDAKETA (ID.05/2021-0046).**



Usurbilgo Udala

Data: 2023/07/20

Puntu hau batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek aho batez berretsi dute tratatzea.

Batzarkideek alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

### “Ikusirik

Udalbatza-Plenoak 2021eko martxoaren 25ean egindako ohiko bilkuran prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Usurbilgo Haur Eskola zerbitzu-emakidaz kontratatzeke lizitazioa martxan jarri zen, udal Kontratatzaile Plataforman argitaratuz. Udalbatza-Plenoaren 2021eko ekainaren 24ko erabakiz esleipena egin zen Udarregi Ikastola IKE-ren alde, kontratua 2021eko uztailaren 6an sinatuz. Prestazio emateko epea 3 urtekoa da, zerbitzua ematen hasten den egunetik aurrera (2021eko irailaren 1a), eta 2 urteko beste epe batez luzatu ahal izango da.

Martxoaren 2ko Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearen 5/03-2023 erabakiaren bidez 2023-2024 ikasturterako doakotasuna zehaztu da. Usurbilgo Haurreskola udalaren jabetzakoa izanik ez dago partzuergoaren beherapenetara lotuta, eta horrek sortzen dituen ezberdinatsunak ekidite aldera udal gobernuak kontratua aldatzeko proposamena egin du.

Zentzu horretan, lehen pausoa udal Ordenantza Fiskalak aldatzea izan da, 2023ko maiatzaren 25eko Udalbatza-Plenoak prezio publikoaren %62ko murrizketa eginez. Udal Kontuhartzaileak 2023ko ekainaren 14an sinaturiko bideragarritasun txostenean adierazten denez, zerbitzu emakida honen oreka mantendu ahal izateko ikasle bakoitzeko prezioaren egokitzapena edo aldaketa egin behar da eta hau, finean, kontratuaren aldaketa egitea da.

### Eta kontuan harturik

- Kontu-hartzailearen 2023/06/14ko txostena.
- Hezkuntza teknikariaren 2023/07/11ko txostena.
- Pertsonal eta kontratazio teknikariaren 2023/07/11ko txostena.

Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENA:** 2021eko uztailaren 6an Udarregi Ikastola IKE-rekin sinaturiko Usurbilgo Haur Eskola zerbitzu-emakida kontratuaren aldaketa egitea, 2. klausula aldatu eta kontratuaren prezio berri hauek finkatuz:

- 3.190 €/ikasleko/urteko, ikasleak 29 edo gutxiago badira.
- 3.130 €/ikasleko/urteko, ikasleak 30 - 33 bitartean (biak barne) badira.
- 3.070 €/ikasleko/urteko, ikasleak 34 - 36 bitartean (biak barne) badira.
- 3.000 €/ikasleko/urteko, ikasleak 37 - 39 bitartean (biak barne) badira.
- 2.945 €/ikasleko/urteko, ikasleak 40 - 44 bitartean (biak barne) badira.
- 2.885 €/ikasleko/urteko, ikasleak 45 - 47 bitartean (biak barne) badira.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/07/20

- 2.825 €/ikasleko/urteko, ikasleak 48 - 50 bitartean (biak barne) badira.
- 2.760 €/ikasleko/urteko, ikasleak 51 - 54 bitartean (biak barne) badira.
- 2.700 €/ikasleko/urteko, ikasleak 55 edo gehiago badira.

**BIGARRENA:** Kontratua burutu ahal izateko 2023ko irailaren 1etik abenduaren 31a arteko gastua 1.5200.227.326.00.04 partidaren kontura egitea.

**HIRUGARRENA:** Aldaketa hau urte beterako egitea, hau da, 2023ko irailaren 1etik 2024ko abuztuaren 31 arte. Hortik aurrera kontratu honen lizitazio berri bat egin edo Haurreskolak Partzuergoan sartzearen arteko erabakia hartu beharko du Usurbilgo udalak.

**LAUGARRENA:** Udarregi Ikastola IKE-ri 5 egun balioduneko epea ematea, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, alegazioak aurkeztu ditzan. Alegaziorik egongo ez balitz, aldaketaren erabakia formalizatu eta Kontratatzailaren Profilean argitaratzea.

**BOSGARRENA:** Erabaki honen berri Udarregi Ikastola IKE-ri, Hezkuntza sailari, Kontuhartzaitza sailari eta eta Kontuen Euskal Auzitegiari ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## **6.- GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Ez dago galdera edo eskaerarik.

EAJ udal taldeak mozio bat aurkeztu du, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Udal Legearen aurka emandako epaiaren harira, baina bilkura ezohikoa denez, ez da mozio gisa tratatu.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:40ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.**